

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Ziordiako (Nafarroa) eta Eginoko (Araba) tokiko errepideak lotzen dituen bidea asfaltatu du

Sustapen Departamentuak, horren bidez, A-1 autobidetik kanpo ibiltzeko moduko lotura falta konpondu eta txirrindularien eta nekazaritzako ibilgailuen segurtasuna hobetu du.

Viernes, 24 de enero de 2014

Sustapen Departamentuak bidea asfaltatzeko obrak amaitu ditu. 500 metro inguru asfaltatu dira, Nafarroako NA-2410 (Sakana) eta NA-7521 (Ziordia) errepideak Arabako Eginoko eta Aguraingo tokiko errepideekin lotzen dituen bidean zehar. Hala, Nafarroako bideak Arabakoekin lotzeko tokiko errepideak egiten jarraitzea da asmoa, A-1 autobidea erabili beharrik gabe.



Zarraluqui kontseilaria eta Jesús M^a Arrese Ziordiako alkatea, Ziordia eta Eginoko lotzen dituen eta berriki asfaltatu den bidean zehar oinez.

A-1 autobideko 391+800 KPtik hasita egin dira obrak, Ziordiako biribilgurutik, eta Ferrosar-Lakita ABEEri esleitu zaio proiektua. Amaierako kostua 34.282,78 € izan da (BEZa barne).

Obra horien bidez, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna hobetu dira, batez ere txirrindulari eta nekazaritzako ibilgailuena (ezin dute autobidea erabili; gainera, oso arriskutsua da halako ibilgailuak autobidean ibiltzea), bi lurraldeak lotzen dituzten tokiko errepideen ibilbideari jarraipena ematen zaiolako.

Ziordiako Udala pozik agertu da Nafarroako Gobernuak kontu horri erantzuna eman izanagatik, iragan abenduan, Parlamentuan, mozio bat aurkeztu baitzen horren inguruan. Sustapen Departamentuari adierazi dio obren gogobetetasuna.

Zehazki, garbitu, bertako sasitza kendu eta bideko plataforma erregulatu da. Luzetarako drainatze-sistemaren parte diren arekak ere lehengoratu eta garbitu egin dira. Azkenik, nahasketa bituminoso beroaren 5 cm-ko geruza zabaldu da errodadurarako zoru gisa, eta informatzeko seinale bertikala jarri da.